Ikasbil HAIZE	**Ezin duzue igogailua erabili**	BAGOAZ!	**A1E25** **Ikasgelan**

1- ENTZUN AURRETIK

1.1 Hemen debekatua dago!

Irakurri taulako debekuak. Zein tokitan egoten dira debeku horiek? Jarri bakoitzaren ondoan dagokion tokiaren zenbakia.Toki horietako bat gero entzungo duzun elkarrizketan agertuko da.

Debekatua dago	NON	Hau ere debekatua dago
☐ Lurra bustita dago. Ezin zara sartu.	1. Futbol-zelaian	
☐ Ezin da txakurrik sartu	2. Igogailuan	
☐ Zortzietatik aurrera ezin da inor bisitatu	3. Liburutegian	
☐ Debekatua dago alkohola sartzea	4. Ospitalean	

Toki horietan zein beste debeku ezagutzen dituzu? Idatzi taulan, eta ondoren alderatu zure lagunarekin. Eta osatu denen artean debekuen zerrenda bat.

2. ENTZUN BITARTEAN

1.1 Uf, hau pisua!

Entzun audioaren lehen zatia eta erantzun galderari.

Zein da bertan ageri den egoera? ➢ Josu eta Amaia erosketak egin dituzte. Josuk ekarri ditu, beti bezala. ➢ Etxea oso fresko dago, eta hoztuta etorri dira. ➢ Josuk pisu handia ekarri du eta Amaiarekin haserretu da.	

Orain entzun berriro, baino audio osoa. Galderei erantzun:

Josuk igogailuan sartu nahi du. Orduan, zer esan dio garbitzaileak? ❏ Sartzeko lasai ❏ Oinez joateko ❏ Sartzeko poliki-poliki	Zergatik ezin dira sartu igogailuan? ❏ Garbitzailea lurra garbitzen ari da ❏ Igogailua izorratuta dago ❏ Amairi ez zaio gustatzen	Zer gertatu da azkenean? ❏ Oinez igo dira etxeraino ❏ Itxoin egin dute ❏ Garbitzailearekin haserre jarri dira.

2. 2. Adarra jotzen, ala?

Erreparatu esaldi hauetan, nork esan ditu? Alderatu erantzunak zure lagunarekin.

Esapideak	JOSUK	AMAIAK	GARBITZAILEAK
Sar gaitezke igogailura? Zoazte oinez bai? Seigarren solairuan bizi gara Adarra jotzen ari zara, ezta? Edo zoazte kafe bat hartzera Ez, eta kito! Hartu beste poltsak eta goazen!			

Orain entzun berriz elkarrizketa eta erreparatu esapide horiek esateko doinuari. Horietako zein esapidetan agertu dute haserrea?

……

3. ENTZUN ONDOREN

3.1 Leher eginda nago!

Josuk oinez igo ditu poltsak eta kexatzen ari da. Erreparatu elkarrizketaren zati honi. Zer esan nahi dute bi esapide horiek? Aukeratu erantzun zuzena eta komentatu zure lagunarekin.

JOSU.— Oinez? ez al dituzu ikusten poltsa hauek denak? Sekulako pisua da.

AMAIA.— Bai, eta seigarren solairuan bizi gara!

……

JOSU.— Posible ote da?

AMAIA.— Lasai, Josu, oinez igoko gara, ahaztu kontu hau.

JOSU.— Baina… pisu handia da, Amaia! Lehertuta iritsi naiz.

Ikasbil HAIZE	**Ezin duzue igogailua erabili**	BAGOAZ!	**A1E25** **Ikasgelan**

Sekulako pisua du. Zer esan nahi du? ☐ Pisu hori sekula ez dut ikusi. ☐ Pisu oso handia du. ☐ Ez du pisurik.	*Lehertuta iritsi naiz*. Zer esan nahi du “lehertuta” hitzak? ☐ Ia lehertu egin dela. ☐ Nazkatuta iritsi dela. ☐ Neka-neka eginda iritsi dela.

Orain begiratu beheko irudiak eta horiei dagokien elkarrizketak. Osatu beheko esapideekin. Ondoren, alderatu zure lagunarekin.

Sekulako giroa dago / Lehertuta (leher eginda) / Posible ote da? / sekulako lana

EGOERAK	Osatu elkarrizketak
	○ Hau da jende pila! ● Bai, eta gainera, ……(1)..... ○ Dena ondo antolatua dago, eta eguraldi bikaina! ● Bai, Ane, …….. (2)..... egin duzue, benetan! ○ Bai, ezta? Saiatu gara behintzat.
	○ Non dago Jon? Ez dago bere gelan. ● Zer? …… (3)..... ○ Aurkitu dut, bere bulegoan dago, lo gelditu da. ● Lotan? Gizajoa, ……..(4)..... egongo da! Egun osoan lanean pasatu du.

3.2 Zer da posible egitea?

Debekua/ ezintasuna adierazteko
Hemen ezin da bizi!
Ezin zara hemen egon/ Ezin duzue igogailua erabili

Posible da… t(z)ea
Hemen posible da erretzea?
Zure etxean posible da lasai egotea?

Orain jarri binaka. Begiratu taulako toki horiek, edo bestela pentsatu zuk beste bat. Idatzi horren hiru pista: zer da posible egitea eta zer ezin da egin? Ondoren taldeko lagunek zein toki den asmatu behar dute. Ikus adibidea:

EMAN PISTAK: EZIN DA EGIN	NON	Non daude debeku gehien?
• Ezin da builarik atera • Ezin dugu ozen hitz egin ……	Jatetxe batean Elizan Liburutegian	

○ ***Toki horretan posible da txakurrak sartzea?***
● ***Ez, normalean hemen ezin dira txakurrak sartu.***
○ ***Eta toki horretan posible da erretzea?***
● ***Ez, toki honetan ezin da erre.***

Zein tokitan daude debeku gehien? Idatzi taulan.

Ikasbil HAZE	**Ezin duzue igogailua erabili**	BAGOAZ!	**A1E25** **Ikasgelan**